

A cartoon illustration of a multi-story building with yellow walls and blue windows. On the left, a boy with brown hair, wearing a yellow and blue striped shirt and blue pants, stands on a balcony with a green metal railing, waving his hand. In the foreground on the right, a girl with brown hair in pigtails, wearing a purple long-sleeved shirt and a red skirt, is smiling and holding a silver cane. A blue speech bubble above her contains the text 'Eskubideak Ditugu'. The background shows a green bush and a blue sky.

Eskubideak
Ditugu

HAINBAT HOBE NORBAITEKIN



Testua: Gladys Herrera

Marraskia: KAIA

Kolorea: María Terrazas eta Tote Azkona

Diseinu grafikoa: Alfredo Requejo

Idea eta zuzendaritza: Roberto Flores

ISBN: 978-84-17774-31-8

Lege-gordailua: BI-1498-19




© Edex 2019 / edex@edex.es / www.edex.es

Debekatuta dago kopiatzea, osorik edo zati bat, edozein prozedura erabilia, aldez aurretik argitaratzaileen idatzizko baimena lortu gabe.

HAINBAT HOBE NORBAITEKIN



Neska-mutikoek eskubidea dute
beraien gurasoek Gizarte Segurantza izateko
eta beraien garapena eta bizimodu duina
bermatuko duten baliabideak izateko.



Orain dela hilabete batzuk, nire etxetik irteterakoan, kalean zerbait entzun nuen, puxika bat airerik gabe geldituko balitz bezala.



–Pssst... neskato!

–Nirekin hitz egiten ari
zara?

–Bai. Aizu, zein da zure izena?

–Nerea. Eta zurea?

–Nirea José.

*Horrela ezagutu
genuen elkar.*

*Eta kaletik
pasatzen
ikusten
ninduen
bakoitzean,
agurtzen
ninduen.*

–Eup, Nerea!



*Egun batean gelditu nintzen eta
nire etxera nire lagunekin jolastera
etor zedila eskatu nion, baina bere
erantzunak harritu ninduen.*




–Ezin dut.

–Zergatik, José?
Nire lagunek
ezagutu nahi
zaituzte.

–Atea giltzaz
itxita dago.








Zortzi urteko mutiko bat
bakarrik, bere etxean
giltzaperatua egoten zen
arratsaldero bere ama
lanetik itzultzen zen arte.





-Eta etxea suak
hartuko balu?

-Eta mutikoa
gaixotuko balitz?

-Oso
aspertuta
eta goibel
egon behar
da gizajoa!



Joseren egoerak kezkatzen gintuen, eta konponbide bat aurkitzeari ekin genion.

-Ba... nik izozki bat jatera eraman dezaket.

-Ba... nik etxeko lanak egiten lagun diezaioket.

-Eta nik jokalekura eraman
dezaket jolastera.



*Guztion artean aste osoan
José norbaitekin egon dadin
egitarau berezia antolatu genuen.*



*Gero, bere etxera abiatu ginen eta berari
eta bere amari aurkeztu genien egitaraua.*


–Eskertzen dizuet, baina ez
da beharrezkoa. José oso ume
arduratsua da eta bere burua
bakarrik zaintzen daki.




–Eta horregatik ezin dut lagunik izan, ama?

–Baina... ama, ez al duzu esaten nire burua bakarrik zaintzen dakidala?

–Kalera irteteak kezkatzen nau.
Kalean arrisku asko dago!






–Bai, baina gauza besterik da...
Honelako erabaki bat ez dut
presaka hartu nahi. Zer, probatuko
al dugu, ea nola ateratzen den?

–Jakina!

–Lehenengo astean gertatzen denaren arabera, zuen proposamenarekin jarraitzen dugun ala ez erabakiko dut. Zer deritzozue?






*Proba ez zen batere
erraza izan:
Danirekin saskibaloian
jokatzerira irten zenean
erori zen eta urratua
egin zuen belaunetan.*

*Mikelekin irten zenean,
hainbeste txokolate jan
zuenez, tripako mina
izan zuen.*



*Eta biribiltzeko,
azken egunean
inork ezin izan zuen
berarekin egon.
Baina, ustekabez,
egun hura funtsezko
eguna
izan zen.*



DRRIING...!!!

–Arratsaldeon...

–Nerearen aita al zara?

–Bai. Nire alabari ezer gertatu al zaio?

–Ez, jauna..., baina niri bai ez badidazu berehala laguntzen...



...José naiz, zure etxetik
oso hurbil bizi naiz.
Larrialdi batean nago!

–Zer gertatzen zaizu?





–Konketako giltza apurtu da
eta bainugelak igerileku bat
dirudi.



-Zitzu bizian noa.

Lasai!

Horrela gainditu genuen
proba gogor hura.
Joserren amak gure
proposamena onartu zuen.
Orain, José ez dago
giltzaperatua;
gure babespean
eta gurekin dago.



HAINBAT HOBE NORBAITEKIN

Ama lanean dagoen bitartean bakarrik eta giltzapetuta dagoen umea da Jose. Berriak dira auzoan, eta amak uste du horrela seguruago egongo dela. Zorionez, leihotik, Nerea ikusiko du pasatzen, eta bere burua aurkeztuko dio. Ordutik aurrera, bere bizitza seguruagoa da.

Eskubideak Ditugu-k 6 urtetik gorako neska-mutilak dituzten familiei hurbiltzen die Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioa.

Bildumako liburuak:

- *Berdintasuna / Lagunen eskua*
- *Osasuna / Hitzez hitz*
- *Ongizatea / Hainbat hobe norbaitekin*
- *Hezkuntza / Letratxoa*
- *Babesa / Korrika egin eta kontatzea*
- *Nortasuna / Esaten dutena, esaten dutela*
- *Lehenengo haurrak / Automobilerik lortzen dute*
- *Parte-hartzea / Komunaren hondamena*
- *Familia / Oso familia normala*
- *Jolasa / Harat-honat korrika*